



the heart
of your appliance

ERANTZUKIZUN
SOZIAL
KORPORATIBOA





01


GURE KONPROMISOA, gure identitate kooperatibotik

ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOEA Copreci eta Mondragon Kooperatiben oinarri beraren parte da eta gure balio eta printzipio kooperatiboetan integratua dago; hori dela eta COPRECiko jarduera honetara bideratzen dugu: pertsonen garapenera (euren formazioa, parte-hartzea eta informazioaren garrantzutasunaren alde eginez), lan eremu ziu eta kalitatezkoa sortzera, enplegu sortzera (nagusiki kooperatiboak), elkartasun interkooperatibora, eta garapen jasangarrira.

Copreci Kooperatiba Elkarte bat da, eta enpresa kooperatiboek eratutako **Mondragon Taldeko**, kidea da, zeinak balio batzuk deklaratzeko dituen eta ondorioz hainbat **konpromiso bere langileekin, bazkideekin, bezeroekin eta gizartearekin**, oinarrizko hartuta **oinarrizko printzipio kooperatiboak** eta **bere Kudeaketa ereduak**.



MONDRAGON KORPORAZIOKO KUDEAKETA EREDUA



OINARRIZKO PRINTZIBIO KORPORATIBOAK



02

NOR GARA, gure identitate ezaugarriak

Hauek dira gure identitate ezaugarriak:

a) Jabetzan parte-hartzea:

bazkide langileak enpresaren jabeak dira. COPRECI lan elkartuko kooperatiba bat da eta, beraz, langile bakoitza enpresako oinarrizko zatia da; horrek **pertsonen konpromisorako jarrera eta protagonismoa** errazten du.

b) Kudeaketa eredu partehartzailea

Bazkide guztiek enpresaren norabidea gidatzen dute, kooperatibako erabaki organoetan parte hartuz (Batzar Orokorra, Kontseilu Errektorea, Kontseilu Soziala eta Kontseilutxoak), eta bide exekutiboaren bidez (laguntzaile bilerak, Gestio Planaren eta Plan Estrategikoaren aurkezpena eta berrikuspenak,...).

c) Kudeaketa gardena eta gidaritza egokia

- i. Bazkideen Batzar Orokorra kooperatibako organo gorena da
- ii. Batzarrak Kontseilu Errektorea izendatzen du, eta honi dagokio kudeaketa eta kolektiboa ordezkatzea.



NOR DIRA JABEAK?



Copreciren jabeak erakundeko langileak beraiek dira.

NOLA ZUZENTZEN DA?




DEMOCRACIA

Hartzen diren erabaki gako guztiak Batzar Nagusiko bazkideek balioztatzen dituzte, demokratikoki, bazkide bakoitzak boto bat izanik.



BERDINTASUNA

Gure ordainsari politikaren oinarrian dago soldaten arteko dispersioa txikia izatea. Horretaz gain, emakume eta gizonen ordainsarrietan berdintasuna bermatzen du.



ZER DA BATZAR NAGUSIA?

Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen duten organo soziala da, kooperatibako gai nagusiak erabaki eta akordioak egiten ditu (kontuak onartu, irabazien banaketa adostu etab).

NORK PARTE HARTU DEZAKE?

▼
Bazkide langileek

▼
Bazkide ez-aktiboek (Coprecin kapitala duten erretiratuak)

▼
Bazkide laguntzaileek eta bazkide laguntzaile bereziak



d) Gizartera itzuli

Coprecin enpresa proiektu sendoak eta lehiakorrak eraikitzeke egiten dugu lan, ez bazkidearen **irabazirako soilik, irabazi hori gizartera eta datozen belau-naldietara eramateko** baino.

Etorkizuna aurreikusteko modurik hoberena orainaldia eraldatzea/berritzea dela konbentzituruta gaude.

Zortzigarren printzipio kooperatiboak **Mondragon Kooperatiben eraldaketa sozialaz** hitz egiten du: "Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak bere eraldaketa sozialaren nahia adierazten du beste herri batzuekin elkartasunean, Euskal Herriko jardunaren bidez bere berreraikitze ekonomiko eta sozialean eta euskal gizarte aske, justu eta elkartasunezkoagoaren eraikuntzan lagunduta, honen bidez:

- 1) Lortutako irabazi garbien proportzio nagusia berrinbertitu, eta zati esanguratsua izaera komunitarioko Fondoetara bideratu, izaera kooperatiboko lanpostuak sortzea ahalbidetzeko.
- 2) Komunitatearen garapenera bideratutako inizatibak lagundu, Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoa aplikatuta.
- 3) Kooperatiba sistemarekin koherentea den Segurtasun Sistema politika, elkartasun eta erantzukizunean oinarritua.
- 4) Izaera ekonomikoa eta sozialeko beste euskal erakundeekiko lankidetzeta, batez ere euskal langile klaseak sustatutakoak.
- 5) Euskara hizkuntza nazional moduan suspertzen lagundu, eta orokorrean euskal kulturaren ezaugarriak.

Coprecin, gaur egun, Eraldaketa Sozialaren inguruan lan egiten duen lantaldea dago eta **helburu** hauek dauzka:

1. Coprecin eraldaketa sozialaren egungo egoeraren diagnostiko bat egin.
2. Mondragonen, Fagor Taldearen eta Interes Taldeen lan ildoak/proposamenak identifikatu.
3. Datozen urteetarako Eraldaketa Sozialaren Plan bat definitu (Plan Estrategikoa, Kudeaketa Plana): laneko lerroak eta helburuak lehenetsi.
4. Jarraipena, hedapena eta inplementazioa.

Bide honetan, Coprecin Eraldaketa Sozialera bideratutako proiektuentzako ekarpen ekonomiko bat egiten du urtero, bere irabazien zati bat **IPDK fondoetara** bideratuz.



d) Euskararen erabilera

Berrogei urte baino gehiago daramagu lanean euskarak **gero eta presentzia handiagoa** izango duen lan mundu bat posible izateko.

Copreci 1976an hasi zen, gutxi gorabehera, lan munduan euskara normalizatzeko lan egiten. Hauek izan dira lorpen nagusiak:

- Lehenengo pausoak modu informalean eman ziren, boluntario talde baten lanarekin euskara eskolak antolatzen hasi ziren.
- 1997-98 urteetan Euskara Plan batekin lan egiten hasi zen, Euskara Batzordea sortu eta beste ekintza batzuekin hasi zen, kartelak itzuli etab. Euskara Batzordearen jarduera oraindik ez zegoen erakundetuta, eta lan jardunetik kanpo egiten zen ekintzak ziren.
- 2000. urtean Euskara Plana enpresa egituran txertatutako jarduera bezala antolatzen hasi zen jada.
- 2007. urtean arauak ezarri ziren, gure lehenengo hizkuntza politika.
- 2011. urtean Zilarrezko Bikain lortu genuen; gure lehen Bikain ziurtagiria zen.
- 2013an euskaren normalizaziorako politika berria adostu genuen.

Gaur egun planak misio honi erantzuten dio: **“Euskara ere lan hizkuntza bihurtzea ekintza plan ireki, integratzaile eta motibatzaile baten bidez”.**

Eta batez ere arlo hauetan ari gara lanean:

- 1) Talde naturaletan lan egitea, lantalde bakoitzak euskararen erabilera handitzeko bere helburuak definitzen ditu bere bilera, dinamika eta komunikazioetan.
- 2) Eusko Jaurlaritzaren **EUSLAN proba pilotua**, euskararen %90eko erabilera hiltzea edo 2017rako %20 igotzea helburua duen proiektua.





e) Kultura Kooperatiboa


Coprecin 2011. urtetik ari gara gure izaera kooperatiboarekin bat datorren eta lorpena eta bezeroari esperientzia ezberdin bat sortzera bideratutako enpresa kultura sortzen.

Copreciko bazkide eta langile bakoitzak sortzen duen balio erantsiaren kontziente izan dadin lan egiten dugu. Eta azken helburua bezeroari zerbitzu hobea eskaintzea duen engranaje baten parte garelako ohartarazteko.

Konbentzita gaude gure identitate kooperatiboa pertsonen protagonismoa eta konpromisoa bezalako portaera eta jarrerak lantzeko testuinguru ezin hobea dela.

f) Emaizak berriz inbertitzea

Gure arauen arabera, gure emaitza positiboen zati bat erreserba fondo batzuetara bideratu behar da ("derrigorrezko erreserba fondoak" eta "borondatezko erreserba fondoak" deituak), eta fondo horiek berriz inbertitzea eta kooperatibaren iraupena ahalbidetzen digute, hau da, gure transzendentzia ahalbidetzen dute (gure atzetik datozenei legatua uztea, guk ere aurrekoek utzitako legatua heredatu eta gozatu dugun bezala).





03

INGURUMENA, inguruarekin gure konpromisoa

Copreci Koop. E.k 1996an Ingurumeneko Gestio Sistema sartu zuen indarrean eta 2000. urteko otsailean ISO-14.001 ziurtagiria eskuratu zuen. Ziurtagiri horrek gure jardueratik eratorritako ingurumen gaien kontrola eta jarraipena ziurtatzen du eta enpresaren ingurumen konpromisoa indartzen du erakundearen Politika, eskuliburu eta dokumentu ofizialetan agerian utziz. Copreci Koop. E.k oraintsu lortu du ISO-14001:2015 berritutako ziurtagiria.

Copreci Koop. E.n ezarritako Ingurumeneko Sistemak ingurumeneko legeak betetzen direla ziurtatzen du. Era berean, urtero energia kontsumoak, materialen kontsumoak eta hondakinak sortzea jaisteko helburuak ezartzen ditugu.

Hauek dira azken urteetan ezarritako hobekuntza esanguratsuenak:

Energiaren eraginkortasuna hobetzeko azken teknologiak kontuan hartzen ditugu:

- Trikloroetileno, perkloroetileno, tolueno etab. kendu.
- Aire girotze sistema berritu.
- Egungo argizatzea aldatu eta kontsumo txikiagoko argizatzea ezarri.
- Konpresoreak berritu eta konpresore eraginkoragoak ezarri.
- Aire konprimituko sistema berritu.

Energia kontsumoak hobetzeko proiektu berezietan lan egiten dugu eta hondakinak kudeatzeko hobekuntza proiektuak bultzatzen ditugu:

- Garbitzeko makinen konpresoreen eta ura berotzeko galdararen beroa aprobetxatzeko proiektua.
- Txirbila biltzeko sistema automatiko bat ezarri.

- Instalazioak abiaraztea (lurrungailua) tentsio-aktibodun uren hondakinak murrizteko.
- Aldizkako laginen monitorizazio sistema taladrina hondakina murrizteko

Itzulgarria den enbalatzeko sistema erabiltzea bultzatzen dugu gure hornitzaileekin.

- Bueltatzeko enbalatzeak sartzeko proiektuetan aktiboki parte hartzen dugu bezeroekin.
- Enbalatze berrerabilgarri edo bueltatzeko enbalatzeak erabilera lehenesten dugu herrialde ezberdinetako gure plantetara bidaltzeko.
- Gure produktuetan enbalatzeak murrizteko aukerak aztertzen ditugu (material gutxiago produktuko, bezeroak berrerabiltzeko enbalatzeak...).



04

LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA, lan arriskuen prebentzioa

Copreci Koop. E.k bere Segurtasun eta Osasun Batzordearen bidez, langile guztien segurtasun eta osasuna sustatzeko konpromiso sendoa hartu du, eta horretarako lanetik eratorritako arriskuak prebenitzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatu eta ekintzak garatzen ditu. Erakundeak izaten dituen ohiko auditoriek arlo hau etengabe gainbegiratu eta funtzionamendua hobetzen laguntzen dute. 2004. urtetik Laneko Arriskuen Prebentzioko OHSAS 18001 ziurtagiria daukagu.

- Legea edo araudi aplikagarria bete.
- Osasuneko kalteak eta osasunak txarrera egitea prebenitu eta Gestio Sistema betetzea, etengabe hobetzea eta eraginkorra izatea bermatu, horretarako helburuak eta adierazleak ezarri eta barruko eta kanpoko auditoriak eginez.
- Segurtasun eta osasun maila altua lortu erakundearen maila guztietan, lana pertsonari egokituz, lana sortzen denean eta ekipoak eta ekoizpen metodoak aukeratzen direnean.
- Bermatu langile guztien parte-hartzea, formazioa eta informazioa, horretarako beharrezko baliabideez hornituz eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren gaietan euren betebeharren kontzientzia izaten lagunduz.

Copreci Koop. E.k prebentzio zerbitzu propioa izatea aukeratu du eta eskusiboki erakunderako lanean ari diren langileak ditu lau espezialitateetan (Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia, eta Laneko Medikuntza).

Azken urteetan Segurtasun eta Osasun arloetan kontrol aktiboko tresna ezberdinen bidez egindako lanarekin (Segurtasuneko auditoriak eta 5S, prebentzio delegatuen segurtasuneko ikuskaritzak, segurtasuneko prebentzio behaketak, gertaera eta arriskuen azterketa etab.), ezbehar-kopurua ingurukoak baino baxuagoa izatea lortu dugu.

Laneko segurtasun eta osasun formazio eta informazioaren arloan, urtero egin ditugun jarduerak hauek izan dira: suteen aurkakoak, lehen sorospenak eta DEA erabilera, kargak altxatzea, gurdien erabilera, altuerako lanak, formazio elektrikoa, PRL oinarrizko formazioa, ergonomia aktiboa eta sentsibilizatze hitzaldiak eta Copreci Koop. E.ko prebentzio zerbitzua- ren lantaldeko formazio berezia.

05

HARREMANA

Gure interes talderen batekoa bazara eta erreklamazio bat egin nahi baduzu, konfidentzialtasun osoz landuko dugula bermatzen dizugu.

Horretarako posta elektronikoko helbide honetara idatzi behar duzu: socialresponsibility@copreci.es



the heart
of your appliance

COPRECI S.COOP.

Araba Ibilbidea, 3
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

SPAIN

Tel.: +34 943 719 499

Fax: +34 943 770 552

E-mail: home@copreci.es